

Daniel Dergiri zerbait gertatu bazaio erran dezatela exigitu du haren aitak

Bisitak debekatu dizkietenez, larunbatetik ez dago inolako berririk haren egoeraz eta 59. eguna du gaurkoa

Hur Gorostiaga / Baiona


Daniel Dergik gose grebaren 59. eguna du gaur. Larunbatetik, ez dago inolako berri zuzenik eta kezka nagusitu da. Aitak, «zerbait gertatu bazaio erran dezatela» exigitu zuen atzo. OIPk osasun inspektzioak eskuhar dezala galdegin du. Administrazio ezberdinek ez dute deus erran nahi.

LARUNBATEAN abokatak ikusi zuenetik, ez da berri gehiagorik. Senideei bisita ukatu zieten atzo ere, astelehenean bezala. «Zerbait gortetzeko badute erran dezatela» exigitu zuen atzo Beñat Dergi haren aitak, emazte eta senide guztiak «lur jota» dau dela argudiatu. Gaur senideei bisitatzen utziko omen dietela entzun zen azken orduan baina ez zegoen deus segurrik.

EGUNKARIAK hainbat saiakera egin zituen haren berri ukaiteko, baina behin eta berriz pareta mutuen aitzinean aurkitu zen. «Ez da Justizia Ministerioaren ardurara» azaldu ziguten Frantziako Justizia Ministerioan. «Deitu Presondegiatako Zuzendaritzara». «Ez da Presondegiatako Zuzendaritzaren afera, ospitalean baitago, deitu Osasun Ministeriora» zioten Presondegiatako Zuzendaritzan. Osasun Ministerioan «ez da gure ardurapean, presondegiko ospitalean baitago, deitu Fresnesera». Eta Fresneseko ospitalean «ezin dizugu deus erran, zuzendaria kanpoan da zenbait egunetarako».

Inori ez zitzaion esplikatu behar izan nor den Daniel Dergi, denek ezagutzen zuten 'Dergi afera'. Aitzitik inork ez omen zezakeen deus erran.

Egoera desblokatu nahirik OIP Presondegiatako Nazionarteko Behatokiak presondegiatako osasun inspektzioaren (IGGAS) eskuhartzea galdegin zuen EGUNKARIAri azaldu zioenez. IGGASek presoek jasotzen duten osasun asistentzia zaintzen du. «Preso batek presondegi batean behar adina laguntza ez badu, presondegiz aldatzeko erabakia har dezake; eta gauza bera presondegiko ospita-



BOB EDMÉ

Hautetsiak berri eske. Mugaz bi aldeko 30 bat hautetsi bildu ziren atzo Baionako Suprefectura aitzinean, Hiriburu, Miarritze, Heleta, Hendaia, Uztaritze, Lehuntze, Urruña, Beskoitze, Lezo, Leaburu, Usurbil, Oiartzun, Pasaia, Hernani, Arrasate, Donostia, Orereta eta Hondarribiakoak, besteak beste. Marie-Andree Alberbide, Alain Iriart eta Jean-Baptiste Etxeberri suprefektarekin bildu ziren eta «familia Daniel Dergiren berririk gabe» dagoela salatu zuten.

lean baldin badago» esplikatu ziguten bart Pariseko OIPren bulegoetatik.

Berriz ere Justizia Ministeriora zuzendu eta azkenean emakumezko batek onartu zuen galderei erantzuten saiatzea, OIPekin mintzatu ginelarik erran ondoren. «Daniel Dergi Fresneseko ospitalean atxikitzen dute, baina medikuak oso kezkatutik daude, ez baitu inolako arreta medi-

kurik nahi. 58. gose greba egunean, ez daiteke erran osasun egoera onean dagoenik» adierazi zuten. Bezperan senide eta abokatuei bisita ukatzean Daniel Dergiren osasun egoerari buruzko agiri bat erakutsi zieten medikuek senideei ongi zegoela erranik. Ministerioko ordezkariak «halako agiririk ez» dagoela adierazi zuten. «Daniel Dergi jaunak medi-

kuen asistentzia ukaturik, ez dute inolako txosten medikurik egin. Ez dut horren berririk eta egin balute horren berri ukanen nukeen» adierazi zuten. Ospitale zibilera eramateari buruz galdegitean, aldiz, Osasun Ministeriora bidali gintuen berriz ere.

Baina administrazioako egiturez gain, 'Dergi aferak' bertze estamentuak ere trabatzen ditu nonbait. Hainbestearaino non Frantziako Giza Eskubideen Ligak ere erabateko isiltasuna atxikitzen duen Dergiren inguruan. Atzo goizean «Dergiren aferaz arduratzeko denborarik ez» zutela azaldu ziguten lehunik, eta «gaiari buruz aski informaziorik ez» zutela, «Dergirena berantagorako utzi» dutela gehituz.

Enbeitak gose greba utzi

Jon Enbeita presoak gose greba bertan behera utzi zuen atzo, 41. egunean. Valencia III presondegian zegoen preso bilbotarrak 17 kilo galduak zituen eta biziki ahul zegoen.

Serafin Blancok gose greba hasi du Espainiaratu ez dezaten, abuztutik hirugarrena

Erredakzioa / Donostia

SOPELAKO Serafin blanco presoak gose greba abiatu du Fresneseko espetxean. Martxoaren 1ean haren aurkako estradizio auzia aztertuko du, baina agintariek jada adierazi dute estradizioa onartzen ez bada kanporatua izango dela. Hala, hau salatzeke Serafin Blancok gose greba hasi du.

Abuztutik hona Blancok egiten duen hirugarren gose greba da. Izan ere, aurrekoetan kanporatua izan zitekeela salatzeke gose greba hasi zuen, baina Frantziako epaileek Espainiako agintariei estradizio auzian informazio gehigarria galdegin zioten, eta hala auzia atzeratu zen. Ondorioz, Blancok gose greba luzeak egin ditu, baina auzia atzeratu egin denez, hauek bertan behera utzi zituen.

Beste bi preso Euskal Herriko espetxeetatik Espainiara eraman dituzte

Erredakzioa / Donostia

ANGEL FIGEROA eta Julen Uriarte presoak azken egunetan Euskal Herriko espetxeetatik Espainiakoetara eraman dituzte. Figeroa iazko ekainean ekarri zuten Langraizko espetxera eta orain Palenciako Dueñas espetxera eraman dute. Julen Uriarte, berriz, otsailaren 10ean ekarri zuten Basaurira eta jada eraman dute Madrilgo Soto del Real espetxera.

Azken hilabeteetan Euskal Herriko Espainiako espetxeetara zortzi preso bidali dituzte Espainiako Espetxe Erakundeek, nahiz eta kasu askotan udalek presoak Euskal Herrian uztea eskatu.

Pierre Pradier: «Fresneseko ospitalea ez da egokia»

■ «FRESNESEKO presondegiko ospitalea egoera larrian dauden eriak zaintzeko egokia ez» dela adierazi zuen atzo Pierre Pradier eurodiputatu ohi eta *Medecins sans Frontières* elkarteko kide miarritarrak. «Paris inguruan badaude ospitale egokiak, hala nola Hotel Dieu eta Saint Petri bezalakoak» adierazi zuen, Kosovotik *RFPB* irratia egingadako elkarrizketan. Pra-

dierrek presondegi eta ospitaleen bisita egin zuen inkesta parlamentario baten baitan eta ongi ezagutzenditu egiturak. Aipatu tako bi eritetxeek «segurtasun baldintzak betetzen dituzten gela bereziak» badituztela azpimarratu zuen, «Fresneseko ospitaleko ziegetan eri batek beharrezkoakdituen zainketak egiteko leku eskasa eta materiale egokiaren falta» argudiatu.